



Hemen gara berriro ere Aste Santuko oporren aurretik egindako lanen berri emateko. Lehenengo hiruhilekoan kontatu genizuen ikastolako talde energetikoa sortu genuela eta **ibilbide energetikoa** egin genuela ikastolaren argiztapena eta berokuntza ezagutzeko. Hurrengo lotura bidez, ibilbide hori zuen seme alabekin etxetik egitera gonbidatzen zaituztegu:

[Euronet_ibilalldienergetikoa/Urumeaikastola](https://euronet_ibilalldienergetikoa/Urumeaikastola)

Zer da energia? Eta zein da bere harremana Garapen Jasangarriko Helburuekin?

Hauek izan dira oraingo gure lan lerroak. Energia bizitzaren iturria dela esan genezake. Forma desberdinetan agertu daiteke, propietate bereziak ditu eta iturri desberdinetatik lortzen da, batzuk berriztagarriak eta beste batzuk ez. Eta okerreana, gure lurraldean behar dugun energiaren soilik %7 ekoizten dugu berriztagarri moduan, horrek suposatzen dituen **arazoekin**:

- Bere erauzketak ondorioak ditu ingurumenean, jo dezagun petrolio erauzketa.
- Bere garraioan sortu daitezken istripuak.
- Erabilerak sortzen duen kutsadura eta ondorioz klima aldaketa.
- Eta sortzen diren hondakinak, arriskutsuenak hondakin nuklearrak izanik.


Baina jabetu gara kalteak ez direla soilik ingurumenean sortzen, arlo sozialean ere eta horren lekuko komunikabideetan askotan entzuten ari garena, prezio igoerak **pobrezia energetikoa** dakar.

Zer egin dezakegu? Neurriak hartu noski, baina baita guk ere:

- Argiak eta gailu elektronikoak itzaltzeko ohitura hartzen ari gara
- Geroz eta gehiago erabiltzen dugu garraioa publikoa
- Berokuntza eta aire-girotuaren tenperatura kontrolatu behar da
- Eta besteak beste, energia-iturri berriztagarrien erabilera eskatu ahal dela.



Baina nork ordaintzen ditu ikastolako fakturak? Hirugarren zikloko ikastaldeak ariketa osagarri batzuk egin ditugu argindar eta gasaren fakturak ulertzeko.

Ez dira zenbaki makalak!



Ikastolako talde energetikoak zuzenean jaso dugun informazio hau gure ikaskideei azaldu diegu eta aurreko urteko ikastolako ekintza planean oinarrituta **“SEMAFORO”** bat egin digute. Zer betetzen dugu eta zer ez? Eta zein hobekuntza proposatzen dizkiogu udalari gure ikastolarako?

Semaforo hau informaziorako dugun “Txoko Berdeetan” jarri dugu eta laster jolasgunean jarriko dugu gurasoak ikus dezazuen.



Hau ez da dena izan, Euronet 50/50 programaren **3. saioa** jolasean burutu dugu, **“Bonbi-sei” karta jokoan**, baina etzazue gaizki pentsatu, jolasaren helburua ondokoa izan da: gure eguneroko ekintza egokien bidez Garapen Jasangarriko Helburuak betetzera iritsi gaitzke, baina ekintza desegokiekin inoiz ez ditugu lortuko.



Ez dugu ahaztu **datu bilketa**. Egia esan, ez dira oso hilabete hotzak izan eta gure geletako temperatura nahiko altua izan da. Berogailua itzalita zegoen gelan 23°C edo gehiago baldin bazeuden, baina egun askotan egon gara 22°tan, berogailua piztuta eta Covid-agaratik leihoak tarte bat irekita zutela aireztapen egokia mantentzeko, baina aldi berean beroa xahutzen zen bertatik.



Argi dugu aurten ez dugula aurrezpen ekonomikorik lortuko.

Hori bai! Gauza asko ikasten ari gara eta praktikan jartzen ari gara pixkanaka.

“Urumea ikastolako talde energetikoa”

